



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

## Getxoko Udalak, sute bat dala eta, urtarriletik itxita egon dan Aquariuma barriztetako lanak hasteko obra baimena emon dau

Bilbon, 2013ko ekainaren 6an.

Joandako urtarrilaren 31n sutea izan ebanetik itxita dagoan Getxoko Aquariumaren jabe dan enpresak bidea zabalik dauka barriztete lanak hasteko. Getxoko Udalak joan dan astean emon eban obra lizentzia, Iosu Madariagak, Ingurumeneko Foru Diputatuak adierazo dauenez, azpiegitura horren itxiera luzearen zergaitiak azaltzeko Bizkaiko Talde Popularrak (PP) egindako eskaerari erantzunez Bizkaiko Batzar Nagusien aurrean egin dauen agerraldian.

Itsasoko azpiegitura jendearentzat zabaldu ahal izateko lanen barruan, gaur eguneko teilatua kendu eta barria jarriko da, eta, ganera, lehenengo solairua eta teilatua eusten daben zutabeak eregiko dira. Aquariuma noz zabalduko dan esateko, teilatua eregi arte itxaron beharko da, adierazo dau Madariagak, eta ez dau inolako eperik emon gura izan. Hori bai, dana dala, zabaltzeko ez da beharrezkoa izango lanak amaituta egotea, “aurreikuspenen arabera, erakusketa zabaldu ahal izango dalako lan batzuk egiten ari diran bitartean”, egiaztatu dau.

## GIPUZKOAKO ZABORRAK

Saio berean, Ingurumeneko arduradunak behin baino gehiagotan ukatu dau Bizkaiko Foru Aldundiak Gipuzkoatik planteamendu formalik jaso dauenik, etorkizunean lurralde horretako uriko hondakin solidoen parte bat Bizkaian lantzeko, balorizetako edo ixteko. Holan, komunikabide batean agertu diran azkeneko informazioak “zurrumurruak” baino ez dirala esan dau, eta adierazo dauenez, Bizkaiko gobernuak behin baino gehiagotan guzurtatu behar izan ditu horrelako informazioak. Batzarretako talde guztiek ontzat hartu ditue diputatuak emondako azalpenak.

## HEGAZTI ESPEZIE ARRUNTEI BURUZKO AZTERLANA

Bizkaiko ganberak aho batez eskatu deutso Foru Aldundiari, PP-ren proposamenari jarraituz, “berraztertu daizala” landa eta uri hegazti espezie arrunten populazioen bilakaerearen inguruan dagozan datuak eta, beharrezko kasuetan, “egin beharreko azterlanak egin daizala” hegaztien bilakabidea zein dan jakiteko eta ingurumen eskumenak daukiezan administrazioei neurriak proposatzeko, populazioak mantentzearren. Talde horren arabera, udabarrian hegaztien erroldak aztertzen dituan SEO/Bird Life-en SACRE programak, urteak daroaz aztertzen hegazti espezie arrunten



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

populazinoek daben bilakaerea, eta “eten bako beherakadea” ikusi dau landa zein uri eremuei lotutako espezie batzuen populazinoetan. EAJ-PNV taldeak, ekimenaren alde agertu bada be, txosten horreen emaitzen aurrean kontuz ibili behar dala esan dau. “Hutsune handiak” erakusten ditue, laginak Estatu osoko 20 puntutan hartzen diralako. Bilduk azpimarratu dau oso garrantzitsua izango litzatekela azterlanaren barruan, espezie horreentzat kaltegarriak izan daitekezan jardunbideak baztertzeko plan bat sartzea.

### TRIANOKO MENDIEN BIOTOPOA

Bizkaiko Batzarrek aho batez onartu dabe PP taldearen beste ekimen bat, Eusko Jaurlaritzari eskatzeko, Trianoko Mendien Biotopo Babestuak izango dauen izen ofizialean “Meatzaldea” toponimoa sartu daiala, Galdames udalerrian dagoan leku horren jatorriari omenaldia egiteko. Proposamenak EAJ-PNV taldearen zuzenketa-eskea jaso dau, euskarazko “Meatzaldea” berbea jaso daian. Azkenean, Eusko Jaurlaritzari bideratuko jakon gomendioa hau izango da: "Biotopo Protegido de los Montes de Triano – Meatzaldea - Zona Minera".

### UR HODIA BOLINTXUKO TROKAN

Batzordeak ezezkoa emon deutso, Foru Aldundiak, Ur Partzuergoagaz alkarlanean, Bolintxuko trokea zeharkatzen dauen Ur Partzuergoaren hodia, Arnotegi eta Seberetxeko tunelak lotuko dituan zubi-bidearen behin betiko diseinuan “ea buztartu leiteken” ikusteko azterlan bat egin daiala dinoen eskaereari. Zubi-bide hori Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidea A-8 eta A-68 autopistakaz lotzeko egingo dan lanaren parte da. Bilbo hornitzen dauen ur hodiaren ibilbidea aldatzeko ekimenak EAJ-PNV taldeko kideen (6) kontrako botoakaz, PSE-EE eta Bildu taldeen aldekoakaz (5) eta PP-ko batzarkide bien abstentzioagaz baztertu da.

Azpiegitura bietako ardura daukien teknikariakaz kontsultau eta gero, EAJ-PNV-k sozialisten ekimenaren kontra egitea erabagi dau, ikuspegi teknikitik “oso konplikaua” dalako eta, ganera, “eraikuntza proiektua asko eta asko garestituko leukelako”. Talde horren eretziz, presino “handia” izango leuken 1,8 metroko diametrodun hodian jarteko “beharrezkoa” izango litzateke zubian zutabe bat egitea, eta hori ez dago aurreikusita hasierako proiektuan. Proiektu horrek zutabe bako egiturea aurreikusten dau, eragina txikiagoa izan daiten. Nerea Ahedoren (EAJ-PNV) eretziz, hori jartean “ikusmen eragina askoz handiagoa izango litzateke”. Taldearen eretziz, proiektuak bere alegazino unea izan eban. Batzarkide jeltzalearen berbetan, proiektua “berandu” heldu da.

PSE-EE eta Bildu taldeak, barriz, Bolintxuko trokea zeharkatzen dauen hodiaren eragina txikitzeko helburua izango dauen azterlana egitearen alde agertu dira. Isaac Fernándezen eretziz, teknikarien txostena jaso eta gero, Batzordean aztertu beharko



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

litzateke zerk dauen ikusmen eragin handiagoa, “42 metroko zutabe batek ala 200 metro baino gehiagoko hodi batek”.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

## El Ayuntamiento de Getxo concede licencia de obra para iniciar la reforma del Acuario, cerrado desde enero a consecuencia de un incendio

En Bilbao, a 6 de junio de 2013.

La empresa propietaria del Acuario de Getxo, infraestructura que fue cerrada el 31 de enero a consecuencia de un incendio, tiene ya vía libre para iniciar las obras de rehabilitación. El ayuntamiento de Getxo entregó la semana pasada la licencia de obras según ha desvelado esta mañana el diputado foral de Medio Ambiente, Iosu Madariaga, en una comparecencia en las Juntas Generales de Bizkaia solicitada por el grupo Popular Vizcaíno (PP) para explicar los motivos del cierre prolongado de esta atracción.

Los trabajos a realizar para poder abrir al público el recinto marino consisten en la retirada de la cubierta actual y la colocación de una nueva, así como la construcción de la primera planta y vigas que sujetan la cubierta, dañadas en un incendio el 31 de enero. La previsión para que se pueda proceder a su apertura “queda a expensas” de que se realicen estas cubiertas, ha advertido Madariaga, quien no ha ofrecido ningún plazo. Eso sí, su apertura no está condicionada a que finalicen las obras, ya que los propietarios del recinto situado en el puerto de Getxo “prevén abrir la exposición mientras se ejecutan algunas obras”, ha anunciado.

### BASURAS DE GIPUZKOA

En la misma sesión, el responsable foral de Medio Ambiente ha negado en varias ocasiones que la Diputación foral de Bizkaia haya recibido un planteamiento formal desde Gipuzkoa para explorar la posibilidad de que en el futuro parte de los residuos urbanos sólidos de este territorio puedan ser tratados, valorizados o vertidos en Bizkaia. En este sentido, ha tachado las últimas informaciones aparecidas en un medio de comunicación de “rumores” y ha mencionado que no es la primera vez que el Gobierno vizcaíno tiene que salir al paso para desmentir una información en este sentido. Todos los grupos junteros han dado por buenas las explicaciones.

### ESTUDIO SOBRE LAS AVES COMUNES

La Cámara vizcaína se ha mostrado unánime para pedir a la Diputación Foral, a propuesta del PP, que revise los datos existentes sobre la evolución de las poblaciones de aves de especies comunes agrícolas y urbanas, y que realice los “estudios oportunos” para conocer su tendencia y poder proponer a las diversas administraciones con competencias medioambientales la adopción de medidas para el mantenimiento de estas



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

poblaciones. Según este grupo, el programa SACRE, de SEO/Bird Life, que estudia los censos de aves comunes en primavera, ha detectado un “declive constante” de ciertas especies ligadas a medios agrícolas y urbanos. El PNV, pese a apoyar la iniciativa, se ha mostrado cauteloso con los resultados de estos informes. Ofrecen “grandes lagunas”, ya que el muestreo se realiza únicamente en 20 puntos del Estado. Bildu ha apostado por que el futuro estudio incorpore un plan de erradicación de las prácticas perniciosas para estas especies.

### BIOTOPO DE LOS MONTES DE TRIANO

El Parlamento de Bizkaia ha aprobado también por unanimidad otra iniciativa del PP para solicitar al Gobierno Vasco que contemple incluir el topónimo “Zona Minera” a la próxima denominación de Biotopo Protegido para los Montes de Triano en homenaje al origen minero de esta superficie incluida en el término municipal de Galdames. La propuesta recoge una enmienda del PNV para que se incluya el término en euskera “Meatzaldea”. Al final, la recomendación que se transmitirá al Ejecutivo vasco será el de “Biotopo Protegido de los Montes de Triano – Meatzaldea - Zona Minera”.

### TUBERÍA DE AGUA EN EL BARRANCO DE BOLINTXU

La Comisión ha rechazado que la Diputación Foral, en colaboración con el Consorcio de Aguas, estudie la posibilidad de “integrar” la tubería que atraviesa el barranco de Bolintxu, en el diseño definitivo del viaducto que unirá los túneles de Arnotegi y Seberetxe, incluidos en el futuro enlace de la Variante Sur Metropolitana (VSM) con la A-8 y la AP-68. La iniciativa para cambiar el trayecto de la tubería de agua que abastece a Bilbao, ha sido rechazada por los votos contrarios de los junteros del PNV (6), los votos favorables de PSE-EE y Bildu (5) y la abstención de los dos apoderados del PP.

Después de consultar con técnicos responsables de ambas infraestructuras, el PNV ha decidido rechazar la iniciativa socialista por ser una operación técnicamente “muy complicada” que, además, “encarecería desproporcionadamente el proyecto constructivo” del puente. Para este grupo juntero, la colocación de una tubería de 1,8 metros de diámetro, que soporta “mucha” presión, “obligaría” a construir un pilar en el puente, algo que no está contemplado en el proyecto inicial que prevé una estructura sin pilares para minimizar su impacto. Su acople “maximizaría el impacto visual”, según Nerea Ahedo (PNV). Su grupo considera que el proyecto tuvo su momento de alegaciones. Para la apoderada jeltzale, la proposición del PSE-EE llega “tarde”.

Por el contrario, PSE-EE y Bildu se han mostrado partidarios de realizar un estudio con el objetivo de minimizar el impacto de la tubería que atraviesa el barranco de Bolintxu. Según Isaac Fernández, tras obtener el informe de los técnicos, habría que analizar en la Comisión qué es lo que produce más impacto visual “si un pilar de 42 metros o una tubería de más de 200”.